

Ezpalak

JON TORNER

Pablo Sarasate (1844-1908) jaiotza zela ehun urte bete dira aurten, martxoaren 10ean hain justu. Data hori gogoan, konpositore eta biolinista nafarraren omenezko *Sarasateren kapritxoak* ikuskizunarekin hasiko da Donostiako 69. Musika Hama-bostaldia, abuztuaren 4an, Victoria Eugenia antzokian. Juan Kruz Diaz de Garaio koreografo gipuzkoarra eta Ara Malikian biolinista libanoarra elkartuko ditu ikuskizun horrek.

Kresala dantza taldeak *Sehaska* baleta eskainiko du estreinakoz Tolosako (Gipuzkoa) Leidor aretoan, apirilaren 12an. Dantzari eta musikari ugari parte hartuko dute.



Arantzabalek eta Idoia Ibarzabalek prestatutako koreografian. Kresala dantza talde donostiarrek 40 urte bete ditu.

'Berriki' izeneko bloga (www.unibertsitatea.net/blogak/berriki) sortu dute Udako Euskal Unibertsitateko Kazetaritza Saileko zenbait kidek. Hedabideen munduaz eta kazetariaren lanbidez aritzeko bloga da.

Joaquin Achucarro pianistak (Bilbo, 1932) Valentziako Palau de la Música kultur erakundearen Domina jasoko du maiatzaren 13an, bere ibilbide oparoan zehar Valentziarekin izan duen harremanagatik. Egun horretan kontzertua eskainiko du Achucarrok Valentziako auditorioan.

Borja Aginagalde historialariak XVIII. mendean idatzitako *Joaquin de Alcibar-Jauregui eta Acharan 1746-1810 eta 'Grand Tourra'* euskarazko antzerki lana argitaratu du. Erroteta argitaletxeak plazaratu du obra horren edizio kritikoa Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen eta Azkoitiko Udalaren laguntzarekin.

Iker Barandiaran kazetariak *Kantaka* programa gidatzen du asteazkenero Arrasate Irratian, goizeko 11:00etan. Musikari buruzko irratsaioa Danbaca.com gunean eskegi dute orain, sarean edozein momentutan entzun dezagun.

Euskadiko Liburutegia Koldo Mitxelena kokatuko da



Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak atzo (martxoak 31) sinatutako akordioaren ondorioz, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Guneak Donostiako kultur azpiegitura publiko nagusien (Tabakalera, Koldo Mitxelena Kulturunea eta Arteleku) berrantolaketa bideratuko du. Hiru erakundeek kultur azpiegitura kudeaketa bateratua egingo dute. Euskadiko Liburutegiaren egoitza, bestalde, Koldo Mitxelena Kulturunea izango da, Aldundiak Eusko Jaurlaritzaren esku utziko baitu eraikina. Koldo Mitxelena erakusketak Tabakalera egingo dira eta Arteleku ere bertara eramango dute. Halaber, Donostia Kulturako Zinema Unitateak eta Euskadiko Filmategiak bertan egongo dira.

Gutun Zuria literatur topaketak egingo dituzte Bilboko Alondegian

APIRILAREN 15ETIK 27RA BITARTEAN Gutun Zuria literatur jaialdia egingo da lehenengoz Bilboko Alondegian. Gutun generoa izango dute ardatz topaketa horiek. Besteak beste, Edo Popovic, Jesus Ferrero, Jordi Sierra i Fabra eta Vicente Molina idazleek parte hartuko dute mahai-inguruetan; eta Espido Freirek, Pedro Ugartek, Juan Basek eta Toti Martínez de Lezeak gustukoak dituzten gutunak irakurriko dituzte. Halaber, Ramon de Basterra, Blas de Otero eta beste zenbait idazleren gutunaz osatutako erakusketa izango da ikusgai, eta hilaren 20an Mikel Urdangarinek eta Kirmen Uribek emanaldi bateratua eskainiko dute. Informazio gehiago: www.alhondigabilbao.com.

Jose Mari Goenaga zinema zuzendariak *Aizu!* aldizkarian: «Urtean euskaraz film bakarra egotea? Ez dakit, hobe gehiago egongo balitz. Baina horregatik esaten dut jada hasierakoei egurra ematen hasten bagara, jendeak ez duela filmik egin nahi izango (...) Uste dut momentu honetan oso egoera onean gaudela film gehiago egiteko».

'Morau' musikariak *Aldaketa* 16n: «Ez dira garai onak diskoak dago mundu mailan eta oraindik ez dago garbi zein izango den musika barreiatzeko erabiliko den formatua, nahiz eta formatu digitala eta Internet

gailenduko direla dirudien. Gaur egun disko bat kaleratzea arrisku handia da. Dena den, badirudi udaberri honetan loraldi bat izan dela euskal diskoen produkzioan».

Patxi Juaristi idazleak *Berrian*: «Ja-ia konturatu gabe, Internetek euskaldunon bizimodua aldatu du. Egongelatik mugitu barik mila aukera eta tentazio jarri dizkigu esku-eskura (...) Erosotasun irabazte dugu, postea gure etxeak denda, postetxe baten bidez gure etxera, merkatuaren gure etxera atek parez pare irekiz. Konturatu gabe, arlo publikoaren eta pribatuaren artean lehen zegoen banaketa desagertu egin da».

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Ven y cuéntalo!

Xabier Silveira, *A las ocho en el Bule*
(Txalaparta, 2007)

Ez ohiko liburua da niretzat. Ez ohikoa inguruko lagunak esakuneok egiten dute: "Ez irakurri! Ez du merezi! Ez galdu denbora motel...". Jon Juaristiren *El bucle melancólico* liburuarekin halatsu gertatu zitzaidan, esaterako. Hura irakurri nuen, baita erreseina egin ere. Funtsean, naizena edo garena hobeto ezagutu aldera egin ere.

A las ocho en el Bule irakurtzen hasi nintzenean, *Beltzaren* (Emilio Lopez Adan) *Euskadi 1984* liburuarekin gogoratu nintzen. Apalategitik jaitsi eta hautsa astindu nion. "Ez dira ia hogeita hamar urte alferrik pasa. Edo bai?" itaundu nion nire buruari.

Liburuaren sarrerako Proudhonen poema berrirakurri nuen: "Hona hemen gobernu; hona hemen bere justizia eta bere morala! Ai humanitatearen nortasuna: nola iraun dezakezu holako zabor tokian!".

Liburua hostokatu eta nahi nuen orrialde-
ra (128.) iritsi nintzen.

"A las once, Xabier Nabarro, Consejero del Interior del Gobierno Autónomo, se acerca a la barricada de Narrica (...). Se ha negado a recibir cualquier protección policial para atravesar el Boulevard....(...) Cara a la barricada se detiene, y en voz alta, serio y, acaso, un poco solemne, pide hablar con la Coordinadora..."

– Euskaraz!

(Koño, eta euskaraz ez dakien mutilak bota dio, ziplo, ongi botata, gainera. Hau da hau, ikustekoa..!)"

A las ocho en el Bule-n barrena segitu nuen. Mutilak, protagonistak, Arrats izena du. Euskaraz badaki, baita Mónica, bere neska lagunak ere. Mónica 1984ko gobernu autonomoaren kontseilariaren alaba izan daiteke. Arratsek gidatzen duen autoak –kontseilariaren

BMWa– 243 kilometro orduko abiadura hartu du eta Bidasoa gainditu...



“– Eskerrik asko Mónica, egitan, eskerrikasko...”

– Lasai, Arrats, lasai, ahora a lo que estamos. Déjame en esa rotonda, en ésta no, en la siguiente. Voy al Faisán y le llamo a mi padre, que es amigo del dueño. Tú ya sabrás qué hacer en Hendaia. ¿No?

– Lasai por eso, maitia, la semana que viene tendrás noticias mías. El coche, ¿que?

– ¡Que se joda el viejo, que se compre otro!”

Arratsek ordu batzuk lehenago *Antiboda* ospatu du Mónicaekin Zarautzen: “Templado de calamar, polenta de maíz brotes vegetales, ensalada de bogavante, carpaccio de solomillo con foie fresco, huevo de caseiro escalfado al vapor sobre...”.

Arratsek flipatu egin du.

Aurreko egunean, *zipaio* bati gorputza erre zion eta dozena bat kutxa automatiko suntsitu.

– Tira, fikzioa duk– esan didate lagunak.

A las ocho en el Bule dezenteko txalaparta atera zuen iazko Durangoko Azokan. Uztak bere garaia du. Gurean hazilaren ostean heldu da uztaila. Edo bestela esanda: “Chez nous, diciembre es época de cosecha”.

Aizak, baina esan zerbait liburuaz–, tematu zaizkit lagunak.

Behinola, 60ko hamarkada zen ‘Argia ez da ikusten’ esan zuen poetak. Eta hartara, argia urratzen eta zabaltzen hasi zen. Urteak iragan ahala baina, Ilunbe, Infernupe edota izen iluneko txokoak eratu ziren...

– Ez da *Zeru horiek* nobela, ezta?

– Ez zeru haiek ez infernu haiek.

Euskal Herria imajinatibo irudimentsu adimentsuagoarekin egiten dut amets.

gure!
arteak
euskaraz

